

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure aplikazioaren balio-proposameneko eskaintza garatzeko, bezeroengana iristeko, haiekin harremanak izateko eta diru-sarrerak sortzeko, zenbait baliabide erabiliko ditugu. Ondorioz, gure enpresaren baliabide garrantzitsuenak honako hauek izango dira:

- Baliabide fisikoak: lan eskaintzak jendearengana irits daitezen ordenagailuak eta telefonoak beharko dira.
- Baliabide intelektualak eta giza baliabideak: Gure taldetok partaide bakoitzak zeregin bat izango du.

Sofia aholkularia izango da, aurrez aurreko harremana eskainiko die gure bezeroei, aholkuak emateko trebezi handia baitauka.



Maren, lan eskaintza berriak lortzeko, beste enprekin harremanetan jarriko da eta marketinean arituko da lanean, enprekin negoziatzen ona baita.

Juditek, berriz, matematikan ondo moldatzen denez, enpresaren diru-sarrerak kontrolatuko ditu.

Eta, azkenik, Shahzada, informatikan trebea denez, webgunean arituko da lanean, hau da, bezero bakoitzaren ezaugarrien arabera dagozkion lan eskaintzak bidaliko dizkie.

- Finantza baliabideak: aplikazioaren garapena lortzeko, alor honetan aditua den pertsona batekin harremanetan egon beharko dugu. Ondorioz, bazkide bakoitzak 800€ jarriko ditu, eta ondoren, gehiago behar badira, elkarren artean adostutako kopurua izango da jarri beharrekoa.

